


## Kikara, gure ontzi jasangarria

Ekobaso herritar-taldea ontzi berrerabilgarrien sistema bat garatzean kontzentratu zen, erabilera bakarreko edalontzien erabilera Gipuzkoako unibertsitateetan murrizteko helburuarekin. Herritar-taldeak unibertsitateko ikasleen artean erabilera bakarreko edalontzien kontsumo handia nabaritu zuen. Sistemaz gain, taldeak difusio kanpaina bat egin zuen sistema hedatzeko eta gehiegizko plastikoaren erabileraren inguruan kontzientzia egiteko.

Proiektuak hartutako azken izena “Kikara” izan zen, Euskaraz “edalontzi” esan nahi duena, eta nolabait gurea egiten duena, gure ontzi jasangarria bihurtuz.

Garatutako sistemaren pilotoa Donostiako Deustoko Unibertsitatean jarri zen.



Ekobaso taldea zenbakietan:

- Prototipo zenbakia: 1
- Bilera zenbakia: 9 talde-bilera, ideazio bilera bat eta prozesuan parte hartzen duten eragileekin 3 bilera.
- Prozesuan parte hartu duten pertsonen zenbakia: 5 eta 8 artean.

Prozesua hiru fase nagusietan definitu da:

Lehenengo fasea: Ekainak 27an taldeak lehenengo bilera izan zuenetik, unibertsitateekin Uztailak 18an bilera izan arte. Lehenengo fase honetan, testuingurura gerturaketa egin zen unibertsitateetako ikasle eta langileei inkesta bat eginez sistema diseinatzen hasteko: edalontziaren materiala, sistemaren funtzionamendua, komunikazio eta difusiorako plangintza. Eta aldi berean, tokiko unibertsitateekin harremanetan jartzen hasi ginen, lehenengo bilera batekin uztailean.

Bigarren fasea: Uztailetik, unibertsitateekin lehenengo bilera izan genuenetik, abuztuaren hasierara arte, pilotoa Deustoko Unibertsitatearekin ixteko izandako bilerara arte. Bilera horretan, eragile bakoitzak (unibertsitatea, kafetegia eta erabiltzailea) zituen behar eta nahiei hobeen erantzuten zuen sistemaren funtzionamendua guztiz definitu zen.

Hirugarren fasea: Irailetik aurrera, Deustoko Unibertsitatearekin udara ondoren berriro harremanetan jarri ginen unetik, kurtso berriaren hasierarekin pilotua martxan jartzeko.

Hona hemen prozesu eta pilotuaren zenbait argazki:





**ekogunea**  
kutxa FUNDAZIOA

**Deusto**  
Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea

**sodexo**

**IMPACT HUB**

Donostia







Funtzionamenduari dagokionez, unibertsitateko kanpusaren barruan edalontziaren zirkulazioa ahalbidetzen zuen sistema bat diseinatu zen. Horretarako, txartel anonimo batzuk diseinatu ziren, identifikazio bezala eta truke-txanpon modura funtzionatzen dutenak.

Erabiltzaile bakoitzak Kikara txartela bat jasotzen du Kikara sisteman izena ematen duen momentuan. Behin sistemaren barruan daudela, erabiltzaileek Kikara txartela kafetegian erakutsi behar dute kafe bat eskatzerako orduan. Kafea Kikara batean jaasotzean, erabiltzaileak kikara txartela kafearen truke ematen du, eta ondoren, Kikara kafetegian itzultzean, txartela berreskuratzen du, hurrengo kafea eskatzeko. Modu honetan, Kikaren zirkulazio sistema bat lortzen da unibertsitateko kanpusaren barruan.

Sistema hau sentzibilizazio kanpaina batek lagundu du erabilera bakarreko edalontziek sortzen duten gehiegizko plastikoaren inguruan kontzientziatzeko.



Donostia

### GURE ONTZI JASANGARRIA

Erabilera bakarreko 700 edalontzi aurrezten ditugu Kikara bakoitzeko  
**BERRERABIL EZAZU KIKARA!**

### NUESTRA TAZA SOSTENIBLE

Por cada Kikara, son casi 700 vasos menos de un sólo uso por curso  
**¡REUTILIZA KIKARA!**

**700**  
edalontzi urtean  
vasos al año

vs

**1**  
kikara urtean  
kikara al año

**¿NOLA ERABIL DEZAKEZU?**

10€-ko gordailua egin Deusto Campusean eskatu zure kafea zure Kikara txartelarekin itzuli Kikara tabernan Kikara txartelaren truke jaso zure gordailua nahi duzunean

**¿¿COMO PUEDES UTILIZARLA?**

1 paga el depósito de 10€ en Deusto Campus  
2 pide tu café con tu Kikara tarjeta  
3 devuélvete la Kikara en la cafetería a cambio de tu Kikara tarjeta  
4 recupera el depósito cuando mejor te venga

Babeslea:

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

## Hurrengo pausoak

Kikarak ahalik eta unibertsitate, zentro eta orokorrean eramateko kafeak jartzen dituzten lekuetara iristeko helburu eta nahia dauka, erabilera bakarreko edalontzia ordezkatzeko eta mundu jasangarri eta berdeago bat lortzeko.